

IRAKASKUNTZA-GIDA

2013/14

Ikastegia 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl. Zehaztugabea

Plana GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa 1. maila

IRAKASGAIA

25942 - Antropologia eta Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

DESKRIBAPEN LABURRA:

Antropologiaren teoria eta metodologia erabilgarriak izan daitezke Gizarte Langintzaren praktikarako. Antropologiak garaiko gizarteetan egiten duen interpretazioa, eta bere kontzeptu funtsezkoenak izango ditu ardatz irakasgai honek, antropologiaren indar analitikoak Gizarte Langintzaren xedeak erdiesten laguntzen duela aintzat hartuta. Hori dela eta, antropologiaren egile eta joera teoriko nagusienetakoak aurkeztuko ditugu. Eztabaida teorikoaren gainetik, irakasgaiak antropologiaren ikerketa eta lan-modua Gizarte Langintzaren esparrura hurbilduko ditu, Gizarte Langileen zereginaren eta antropologiaren arteko trukea sortarazi asmoz.

GAITASUNAK:

- 1.- Gizarte Langintza ikuspuntu zabal eta holistiko batean onartzeko gauza izatea. Horretarako, gertakari sozialen jatorrian edo/eta garapenean zerikusia duten aldagaien konplexutasunak kontuan hartu behar dira.
- 2.- Antropologian sortutako teoriara eta ezaguera etnografikoetara gerturatzea, gizarte-mailaketa eta desberdintasuna aztertzeke.
- 3.- Aztertuko diren gizarte-errealitatea eta -arazoak ikuspuntu kritiko batetik garatzea ahalbidetuko dituzten ezaguera eta lan-tresna kontzeptualak eskuratzea, non pertsona eta eragile inplikatuaren definizioei eta arrazoiei leku nabaria emango zaien.
- 4.- Kulturaren izaera dinamikoa eta dimentsio sinbolikoa ulertzea eta haiei buruz hausnarketa egitea, kontuan hartuta beren leku- eta denbora-aldakortasunak, eta egungo gizarte kulturantzak aztertzerakoan dituzten eraginak.
- 5.- Genero-sistemen ekoizpenean eta erreprodukzioan parte-hartzen duten faktoreak ulertzea, bai eta hainbat fenomeno sozial eta kulturaletan antropologia feministak egindako ekarpenak ulertzea ere.
- 6.- Antropologia sozialaren metodologia eta ikerketa-teknika erabilienak ezagutzea eta praktikara eramatea, arazo edota egoera sozialeko analisisian, diagnostiko sozialak osatzerakoan, eta pertsona, talde edota kolektiboekin egin beharreko lana planifikatzerakoan.

GAI ZERREDA

1. Antropologia Kulturalaren sarrera. Zer da Antropología eta zein bere ikergaia?
2. Antropologiaren kontzeptu funtzeskoenak:kultura eta kultur aniztasuna, gizarte kultur erlatibismoa, etnozentrismoa, holismoa...
3. Antropologiaren Historia:egile, eztabaida eta teoria nagusiak
4. Bazterketa soziala eta kulturalaren interpretazio antropologikoa
5. Genero-sistema teoría eta eztabaida feminista gizarte gertakarietan aplikatuta
6. Etnizitatea eta emigrazioa
7. Ondorioak. Antropologiaren ekarpenak Gizarte Langintzara

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|------|---|------|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 45 | | 15 | | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 67,5 | | 22,5 | | | | | | |

Legenda: M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

Argibideak:

Argibideak:

Irakaskuntza modalitate bakoitza gara daiteke prestakuntza-jarduera desberdinen bidez. Koadroan azaltzen direnez gain, zeintzuk zuzenki asignatura honetan deskribaturiko eskumenei baitagozkie, asignatura honetako garapen egokirako beste prestakuntza-jarduera beharrezkoak aipa daitezke.

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Test motako azterketa idatzia
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

- Azterketa idatzia eta test modukoa.
- Talde lana: gaia baten aurkezpena klase aurrean.
- Banakako lanak: testu iruzkinak, mapa kontzeptualak, e.a.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- FERNANDEZ DE LARRINOA, Kepa.(2009). Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean. Utriusque Vasconiae: Donostia

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- BOHANNAN, P. (1996): Para raros, nosotros: introducción a la antropología cultural. Madrid: Akal.
- DE LA CRUZ, Isabel. (2002). Introducción. En De la Cruz, I. (Coord.), Introducción a la antropología para la intervención social.
- EMBER, C. & EMBER, M. (1997): Antropología cultural. Madrid: Prentice Hall.
- GEERTZ, Clifford (1988): La interpretación de las culturas. Barcelona: Gedisa.
- KOTTACK, K.P. (2002): Antropología cultural. Madrid: McGraw-Hill.
- PRAT Y MARTINEZ (eds.) (1996): Ensayos de antropología cultural. Barcelona: Ariel

Gehiago sakontzeko bibliografia

- CASTEL, Robert. De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso. In: VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21. Board; Barcelona, 1995.
- DENEUVE, S.; REEVES, Ch. 'El modelo norteamericano. Reflexiones sobre los mecanismos de control social' In: VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21. Board; Barcelona, 1995.
- EMAKUNDE. Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak. Emakunde; Gasteiz, 2008.
- ESTEBAN, M.L. Antropología eta feminismoa In: VV.AA. Uztaro, 24. Zbk. 1998 (3-17 orri.)
- FERNANDEZ, T.; ALEMAN,C. (coord.). 'La Antropología' In: Introducción al Trabajo Social. Alianza; Madrid, 2003 (pags. 211-215)
- GALLEGO RANEDO, Carmen. Antropología Aplicada y Trabajo Social In: Acciones e Investigaciones Sociales (pags. 5-22).
- LIZCANO, E. 'Para una crítica de la sociología de la pobreza' In: VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21. Board; Barcelona, 1995.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak